

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onartzea eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza aldaketa

Udalbatzak, 2018ko maiatzaren 8ko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza aldaketari. Aldaketa horri behin-behineko onespena ematen dion erabakia jendaurrean egon den bitartean haren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin-behineko erabaki hori behin betiko erabaki bihurtu da, uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren, toki ogasunak arautzen dituenaren, 16.3 artikulua eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenaren, 49.c) artikulua xedatutakoarekin bat etorritz.

Foru arau horrek 16.4 artikuluan eta TAOLek 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, oso-osorik ematen dira argitara aldaketen testuak eta ordenantza berriarenak:

ZERGA ORDENANTZA, ERAIKUNTZEN, INSTALAZIOEN ETA OBREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udal honek, bat etorritz uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituenak, 19.2.a) artikuluan eta 45/1989 Foru Arauak ezarritakoarekin, eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga ezartzen eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita tarifa aplikagarriak jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga egitatea

3. artikulua

Zerga gaia da edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea Kanpezu udalerrian, horretarako beharrezkoa bada obra edo hirigintza baimena, baimen hori lortu edo ez, edo baldin eta erantzukizun aitortpena edo alde aurretik jakinaraztea eskatzen bada, betiere baimena ematea edo kontrol jarduera egitea udal honi badagokio.

4. artikulua

Besteak beste, hauengatik ordaindu behar da zerga:

1. Oin berriko edozein eraikin edo instalazio egiteko obrak.
2. Lehendik dauden mota guztietako eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.
3. Eraikuntzen, eraikinen eta mota guztietako instalazioen egituraren edo arkitektura eraketan edo haien kanpoko itxuran eragina duten aldakuntza edo eraberritze obrak.
4. Eraikuntzen kanpoko itxura aldatzekoak edo haien birgaitzeko helburua dutenak, berdin du zein den haien erabilera, lehendik dagoen etxebizitza bitan edo gehiagotan banatzea berekin dakartenak barne direla.
5. Behin-behineko izaeraz egiteko diren obrak.

6. Lur mugimenduak; esaterako, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak, baldin eta egintza horiek ez badaude zehaztuta eta programatuta urbanizazio edo eraikuntza proiektu onartu edo baimendu batean egikaritu beharreko obra gisa.

7. Eraikuntzen eraispena, berehalako aurriaren adierazpena egin zaienetan izan ezik.

8. Aparkalekuetarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.

9. Bide publikotik ikus daitezkeen propaganda kartelak ipintzea.

10. Eraikuntzaren osagarriak diren urbanizazio obrak.

11. Finken itxiturak, hormak eta hesiak.

12. Bideak egitea, baita horiek aldatzea edo zolatzea ere.

13. Prefabrikatutako etxeak eta antzeko instalazioak, behin-behinekoak nahiz iraunkorrak, ezartzea.

14. Negutegiak instalatzea.

15. Elektrizitate edo telefono hariteriak edo horien antzekoak eta telekomunikazio sareak edo energia eramatekoak instalatzea, eta edozein motatako antenak kokatzea.

16. Edozein obra, eraikuntza eta instalazio, ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoen inbertsioa berekin dakarrena, eta obra edo hirigintza baimena, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena behar duena.

Betearazpenerako aginduek eta betearazpen subsidiarioek ere zerga hau eskatzea ekarriko dute berekin.

5. artikulua

Ez zaie zerga hau ezarriko higiezinetan egindako eraikuntza, obra eta instalazioei, haien jabari titulartasuna udalarena bada, eta udala bera bada obren jabea.

III. Salbuespenak

6. artikulua

Zergatik salbuetsita egongo dira:

a) Estatuaren, autonomia erkidegoen, lurralde historikoen edo toki erakundeen jabetzako eraikuntza, instalazio eta obrak, zergapekoak izan arren, baldin eta helburua errepideak, trenbideak, aireportuak edo obra hidraulikoak egitea edo herrien saneamendua eta haiek sortzen dituzten hondakin uren arazketa bada, nahiz eta erakunde autonomoak kudeatu, bai inbertsio berriko obrak, bai kontserbazio obrak.

b) Arabako Lurralde Historikoaren Kontzejuen jabegoko edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, zeinaren xedea zerbitzu edo erabilera publikoa baiten.

c) Uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauak, ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duenak, bere 4. artikulua 1. idatz zatiko k) letran adierazten duen salbuespena aplikatu behar zaien edozein ondasunetan (uztailaren 3ko 7/1990 Legeak, euskal kultura ondarearenak, bere 2. artikulua 2. idatz zatiko a) letran adierazten dituen monumentuak direnean) egindako eraikuntza, instalazioa edo obra.

IV. Subjektu pasiboak

7. artikulua

1. Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, higiezin batean egiten den eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisikoak edo pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikulua 3. idatz zatian aipatzen diren entitateak, eta horiek guztiak subjektu pasibo izango dira nahiz eta ez izan higiezinaren jabe.

Aurreko paragrafoan araututakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat joko da haiek egiteak dakartzan gastuak edo kostua ordaintzen dituen.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, bere ordeko subjektu pasibotzat joko da eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko baimena eskatzen duena edo erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko berriematea aurkezten duena edo eraikuntza, instalazioa edo obra egiten duena.

Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga kuota eskatu ahal izango dio zergadunari.

V. Zerga oinarria

8. artikulua

1. Zergaren oinarria da eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta benetakoa, eta halakotzat hartzen da, ondorio horietarako, gauzatze materialaren kostua.

Ez dira zerga oinarrian sartzen balio erantsiaren gaineko zerga; araubide berezietako berezko beste antzeko zergak; ezta ere eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasa, prezio publiko eta ondare prestazio publiko eta tokian tokikoak; ez eta profesionalen soldatak, kontratistaren enpresa etekinak, eta, zorrotz hartuta, gauzatze materialaren kostuan sartzen ez diren gainerako kontzeptuak ere.

VI. Zerga kuota

9. artikulua

Zerga honen kuota, zerga oinarriari eranskinean zehazten den karga tasa aplikatzearen emaitza izango da.

VII. Sortzapena

10. artikulua

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean gertatuko da, nahiz eta baimenik ez eduki.

VIII. Kudeaketa

11. artikulua

Aginduzko baimena ematen bada edo erantzukizunpeko aitortpena edo aurretiazko jakinarazpena aurkezten bada, edo baimena eskatu edo eman ez arren (edo eskatu eta ukatu arren) edo aitortpena edo jakinarazpena aurkeztu ez arren eraikuntzari, instalazioari edo obrari ekiten bazaio, konturako behin-behineko likidazioa egingo da, eta horretarako honela kalkulatu da zerga oinarria:

a) interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, baldin eta elkargo ofizial eskudunak ikus-onetsi badu, ikus-onespena aginduzko betekizuna izanez gero.

b) bestela, zerga oinarria udal teknikariek kalkulatu dute proiekturako aurreikusitako kostuaren arabera.

12. artikulua

Behin baimena emanda hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko beste likidazio bat egitearren, hasierako aurrekontuari gehitu zaion zenbatekoaren arabera.

13. artikulua

Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak edo obrak ikusirik, eta horien benetako kostu erreala kontuan hartuta, udal administrazioak, administrazio egiaztapen egokia dela medio, 11. artikuluan aipatzen den zerga oinarria aldatuko du, hala badagokio, behin betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatu, edo, hala dagokionean, itzuli egingo dio.

14. artikulua

Baimen baten titularrak obra, eraikuntza edo instalazio baimenduak egiteko asmoa bertan behera uzten badu eta hori idatzizko uko egitearen bitartez adierazten badu, udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo guztiz baliogabetuko du.

Azken xedapena

Ordenantza hau eta bere eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta hala iraungo dute aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

ERANSKINA

Tarifa

Eraikuntza, instalazio edo obra mota	Karga tasa
Mota guztietako obretarako	ehuneko 3,4

Santikurutze Kanpezu, 2018ko uztailaren 27a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO